



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Asteazkena
2008-03-12**

VIURTEA 1384.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Xake Txapelketan parte hartu zuten haurrek kiroldegian. HITZA

HAURREN SAIOAK ARRAKASTATSUENAK KULTUR ASTEAN

ANOETA Anoetako Udalak balantze positiboa egin Kultur Astearen harira, nahiz eta ekitaldi guztiek «ez duten arrakasta berbera izan» 5

Tolosako Orfeoia Mozarten 'Requiem' lana eskainiko du etzi Aste Santuko kontzertuan

TOLOSA Iruñeko Orkestra Concertorekin batera ariko da Tolosako Orfeoia, Leidor aretoan, 20:30etik aurrera 4

Leire Olaberria Munduko Pista Txapelketan lehiatuko da

IKAZTEGIETA Manchesterren izango da hilaren 26tik 30era; ikaztegietak bi probatan hartuko du parte, jazarpenekoan eta puntuazio proban 4

XABIER ZABALO
LEITZAKO ALKATEA

«Agenda 21 denen beharrak asetzeko erreminta da»

LEITZA Mendialdeko Agenda 21ean buru-belarri ari da 7

IGOR ARRAIAGO
ARESOKO ZINEGOTZIA

«Polita izango litzateke elkarlanean aritzea»

ARESO Agenda 21en jarraipena egiten du 7

Gipuzkoako Pilota Txapelketa, Belabietan

IBARRA Eskolartekoak larunbatean ariko dira, alebin eta infantiletan, 16:00etatik aurrera 6

txokoa
h

kontzerturako
2 sarrera pare zozketan
deitu eta eskuratu

Larunbata • martxoak 15
22:00etatik 05:00 arte
Tolosako Beotibarren



Gaur aurkeztuko da hitza.info, herri informazioaren leiho berria

Hedabideak » Zazpi Hitzen 102 herrietako albisteak biltzeaz gain, herri informazioaren inguruan lanean ari diren beste hainbat webguneren edukia ere erakutsiko du.

ERREDAKZIOA

Zenbait hilabete igaro dira herri informazioa lantzen duten euskarazko HITZA egunkariak webguneak berritu zituztenetik. Izan ere, teknologia berriek goitik behera iraili dute kazetaritza egiteko modua, eta udazkenean Hitzak ezinbestekoa ikusi zuten erroka berriari erantzutea. Asmo horrekin berritu ziren zazpi Hitzen webguneak, beti ere edizio jarraituari, blogei, bideoei, argazkiei eta herri-tarrek bidalitako informazioari garrantzia emanaz, beste hainbat atalekin batera.

Orain, edizio jarraituetako informazioa bateratu eta gaurtik aurrera sarean den www.hitza.info webgunea abiarazi dute tokian tokiko prentsa sustatzeaz arduratzen den EKTren baitako Bertako Hedabideek.

Gaur izango da aurkezpena, 19:00etan, Donostiako Doka kafe antzokian.

Dozenaka herri-tako informazioa, zuzen-zuzenean

Euskarazko herri informazioaren atari garrantzitsuena bihurtzea da asmoa, Hitzetako 102 herrietakoaz gain, herri informazioaren inguruan lanean ari diren beste hainbat agerkeri digitalen edukia eta albisteak ere bilduz eta erakutsiz.

Honela, Tolosaldea eta Leitzaldea, Urola Kosta, Donostia, Lea-Artibai eta Mutriku, Busturialdea, Goierri eta Oarsoaldean gertatzen denaren inguruko berehalako albisteak emateaz gain, Uribe Kostako herrietako, Hernaniko, Arrigorriagako, Baztan eta Bortzirietako, Bidasoako, Iruñerriko eta beste hainbat herri eta eskualdetako informazioa ere izango da webgune berrian, Ttipi-Ttapa, Hernaniko Kronika, Bidasoa Media, Arrigorriagan Euskaraz, Nabarria eta beste hainbat komunikabiderekin abiarazitako elkarlanari esker.

HITZA kanala Euskaltuben

Bateko eta besteko albisteak bilduko dituen edizio jarraitua izango denez webgunearen ezaugarri nagusienetakoa, arduradunek garrantzia eman nahi izan diote gertaeren argazkiak eta bideoak erakusteari. Honela, albisteek izan



Teknikoki, EKTren baitako Internet Ehurtzen SL-k garatu du gaur aurkeztuko den 'www.hitza.info' webgunea. HITZA

dezaketen argazkiak edota bideoak gain, argazki bildumak eta bideoak ikusteko aukera ere izango da.

Bideoei dagokionez, gainera, aurrerantzean Euskaltube izango da Hitzen webguneak bideoak igotzeko hautatuko duten webgunea, eta Euskaltuben bertan kanal berezia izango da Hitzen bideo horiek ikusi ahal izateko.

Zehazki, Hitzen webguneetan erakutsi ahal izateko kazetariak Euskaltubera igoko dituzten bideoak, bertako Hitza kanalarri lotuko dizkiote aurrerantzean, eta hartara, Euskaltubera sartzen den edozein erabiltzailek, Hitzaren kanal propio horretan ikusgai izango ditu Hitzetako bideo horiek guztiak.

Papereko edizioak PDFan ikusi eta eskuratzeko aukera

Webgune berriak laster batean emango duen beste aukeretakoa bat, HITZA egunkariaren papereko edizioak ikusi eta saretik jaitsi ahal izatea izango da. Zazpi Hitzetako eguneroko papereko edizioen bai azala edota baita egunkari osoa ere jaitseko aukera izango dute erabil-

tzailleek. Honela, Hitzak argitaratzen diren eskualdeetan bizi ez diren euskal herritarrek, horietan plazaratzen den informazioa irakurtzeko aukera izango dute, webguneetan ez ezik, baita papereko formatuetan argitaratu diren modu berean ere.

Gaur egun, zazpi Hitzak 102 herritara iristen dira, guztien artean egunero 40.000 ale inguru argitaratuz, asteartetik larunbatera Busturialdeko Hitzaren kasuan, eta asteartetik igandera gainerako sei Hitzen kasuan. Orain, webgune berriak papereko edizioa PDFan ikusteko edo jaitseko eskainiko duen aukerarekin, beste milaka irakurle izango dituzte Hitzek.

Webguneek ere, milaka irakurle egunero

Hitzen papereko edizioek ez ezik, zazpi Hitzen webguneek ere milaka bisitari eta irakurle izaten dituzte egunero. Batez beste, zazpi webguneen artean 14.000 bat irakurle aitortzen dituzte egunero bisitari kopurua zehazten duten Interneteko zenbatzaileek.

Horiek guztiak ikusten dituzten edukiak izango ditu www.hitza.info webgune berriak ere: edizio jarraitua, elkarriketa digitalak, bideoen eta argazkien bildumak, blogak, norbanakoek eta gizarte eragileek informazioa bidali ahal izateko Zurea da Hitza atala, agenda bateratua, inkestak, eztabaidak, eta abar.

Hau guztia, gaurtik aurrera, gainera, herri informazioaren aritzen diren bidelagun berrien laguntzarekin.

«Euskarazko herri informazioaren erakusleihu zabala izango da gaurtik aurrera atari berria»

IBAN ARREGI » Bertako Hedabideetako zuzendaria

Webgunea » Kazetaritza egiteko modu berriari erantzutea eta herri informazioaren egiten den lana erakustea da helburua.

ERREDAKZIOA

Iban Arregik (Azpeitia, 1975) jendaurrean aurkeztuko du gaur www.hitza.info, Donostiako Doka kafe antzokian 19:00etan izango den ekitaldian.

Webgune berria etorkizuneko kazetaritzaren erroka aurre egiteko prestatu dutela nabarmendu du.

Gaur aurkeztuko duzun webguneak euskarazko kazetaritzari zein ekarpen egin diezaiok?

Albiste agentzia handien eta teletipoen murrizketen bizi da hein handi batean gaur egungo kazetaritza. Herri informazioaren inguruan lanean ari diren hainbat egunkari, aldizkari eta agerkerik, ordea, beste



GARI BERSALUZE - HITZA.INFO

inork baino hobeto eta azkarrago lantzen dituen albisteak, gertaeren lekuan, bertatik bertara, zuzeneko informazioa bilduz. Hori guztia hainbat webgunetan argitaratzen da gaur egun, baina nekez biltzen da hori guztia nonbait. Beharrezkoa ikusten genuen herritarrengandik beste inork baino hurbi-

lago dauden komunikabideen informazioa bateratzea. Hori da helburua, eta hori da euskal kazetaritzari egingo dion ekarpena. Azken batean, euskarazko herri informazioaren erakusleihu zabala izango da gaurtik aurrera atari berria.

'www.hitza.info' da webgunearen helbidea. HITZA egunkariaren informazioa soilik bilduko al du?

Ez. Bertako Hedabideetatik urteak daramatza, tokian tokiko euskara elkarteekin eta gizarte eragileekin euskarazko komunikazio proiektuak sortuz eta sustatuz. HITZAK dira azken urteotako lanaren emaitza nabarmenena, eta horien webguneetako informazioa bateratzea otu zitzaigunean konturatu ginen zein atari garrantzitsua izan zitekeen webgune berria. Behin horrelako atari bat abian jarrita, ordea, herren geratuko litzateke euskaraz herri informazioaren inguruan hainbatek eta hainbatek egiten duten lana bazterrean utziko bagenu. Horregatik,

hainbat komunikabiderekin elkarlanean ekingo diogubideari hasieratik, beti ahalegindu garen bezala, eta aurrerantzean ere elkarlanean erakutsiko zabalik izango ditugu euskarazko herri informazioaren atari berriaren guztientzat.

Hitzen webguneak berritu zirenean 'etorkizuneko kazetaritzaren erroka' eutsi nahi zietela irakurri genuen. Ildo horri eutsiko dio webgune honek ere.

Bai. Internetek egundoko aukera ematen du gertaerak berehala kontatzeko, eta argazkiak eta bideoak berehala erakusteko. Hori herri informazioaren aritzen diren egin dezakete beste inork baino hobeto, eta Kazetaritza 2.0 kontzeptu hori da webgune berriaren ezaugarri nabarmenena: edizio jarraituaren garrantzia, argazkiak eta bideoak erakustea, irakurlearen parte-hartzea sustatzea eta, noski, herritarren iritziek eta albisteek garrantzi nabarmena izatea.

Munduko Pista Txapelketan lehiatuko da Leire Olaberria

Ikaztegieta »

Manchesterren izango da hilaren 26tik 30era. Ikaztegiarrak bi probatan hartuko du parte.

ERREDAKZIOA

Leire Olaberria ikaztegiarrak Munduko Pista Txapelketan bi probatan parte hartu du. Jazarpenekoan Espainiako markara gerturazteaz izango du helburu. Baina, batez ere, bere esfortzu guztia

Puntuazioko proban ipiniko du, Olinpiar Jokoetarako txartela lortzeko aukera duelako. Une honetan, leku pribilegiatuan dago hori lortzeko eta Munduko Txapelketa honetan errematatzeko baino ez zaio falta.

Unai Elorriagarekin batera, bi txirindulari euskaldunak Mallorcako hiriburuan, Palman daude Espainiako Selektzioarekin batera prestaketa programan parte hartzen. Hau amaitu ostean, hilaren 22an Manchester-era bidaiatuko dute txirindulariek.

Laburrak

Ikasketak aukeratzeko hitzaldia, bihar

TOLOSA » Bihar, 19:00etan, *Nola lagundu gure seme-alabei hurrengo ikasketak aukeratzeko?* hitzaldia eskainiko dute Orixe Institutuko eGelan. Batxilergoko ikasleen gurasoei zuzenduta dago, eta Xavier Tolosa orientatzaileak emango du.

Auzo batzarra etzi, Urkizuko Apaiz-lokalean

TOLOSA » Etzi, hilaren 14an, 20:00etan auzo batzarra egingo dute Urkizuko Apaiz-etxeko lokalean Udalak deituta, Berpiztu egitasmoa dela eta lehen ziri borroa aurkeztu asmoz. Auzotar guztiak daude gonbidatuta parte hartzera.

Udal Musika Eskolako kontzertua, gaur

TOLOSA » Eduardo Mocorua Udal Musika Eskolako ikasleek, kontzertua eskainiko dute gaur, 19:00etan hasita. Emanaldia Musika Eskolan bertan izango da, eta herritar guztiei irekia da. Soka kuartettoa, akordeoiak, klarineteak, kontrabaxua, orkestra txiki bat, pianoa eta txeloak izango dira entzungai, besteak beste saioan zehar. Eta musikariek interpretatuko dituzten obreri dagokionez, denetarik izango da, hau da, rock-a, swing-a, folka, herrikoiak eta modernoak, esaterako. Horretaz gain, lurralde askotako abesti herrikoiek ere lekua izango dutela esan daiteke.



Iruñeko Concerto orkestrarekin batera Tolosako Orfeoia Leidorren eskainitako kontzertuaren une bat. J. SAIZAR

Tolosako Orfeoiaren Aste Santuko kontzertua, etzi

Tolosa » Mozarten 'Requiem' obra eskainiko dute, Leidor aretoan, Iruñeko Orkestra Concertorekin batera.

beras sopranoak, Iñigo Casali tenoreak, Gleisy Lovillo kontraltoak, Jose Bernardo Alvarez baritonoak eta Arkaitz Mendoza organo-jotzaileak hartuko dute parte.

» DATUAK

IÑIGO TERRADILLOS

Tolosako Orfeoia Aste Santuko kontzertu berezia eskainiko du etzi, Leidor aretoan, 20:30ean. Hain zuzen ere, W.A. Mozarten *Requiem* obra interpretatuko du emanaldi honetan.

Etzi Leidorren eskainiko duen kontzertuaz gain, igandean, hilaren 16an berriro ere taula gainean jarriko dira Orfeoia kideak. Kasu horretan Iruñeko Aita Dominikoen elizan izango da. Bi emanaldietan Iruñeko Orkestra Concertorekin batera ariko dira tolosarrak, Ignacio Ruiz de Alegria maisuaren zuzendaritzapean.

Kontzertu hauetan Amaia Ar-

- **Kontzertua.** Tolosako Orfeoia Aste Santuko kontzertu berezia. Mozarten *Requiem* eskainiko dute.
- **Eguna eta ordua.** Etzi, 20:30ean.
- **Lekua.** Leidor aretoa.
- **Zuzendaria.** Ignacio Ruiz de Alegria.
- **Partaideak.** Tolosako Orfeoiaekin batera Iruñeko Orkestra Concerto ere ariko da.
- **Musikariak.** Amaia Arberas, Iñigo Casali, Gleisy Lovillos, Jose Bernardo Alvarez eta Arkaitz Mendozak ere hartuko dute parte.
- **Txartelak.** Leidor aretoan eta Tolosaldea Tour-en bulegoan daude salgai.

Konpositore handienetakoa

Wolfgang Amadeus Mozart konpositore austriarra mendebaldeko musika klasikoko konpositore handienetako bat da aditu guztien iritziz. *Requiem* obra konposatze-ko enkargua, Waisegg-Stuppach kondearena, modu anonimoan jaso zuen Mozartek. Baina bukatu baino lehen hil egin zen.

Obraren ardurua Eybler-ek hartu zuen arren, bere gaitasun faltagatik Susmayrren eskuetara pasa zen. *Introitus* eta *Kyrie* delakoak izan ezik (biak Mozarten originalak), gainontzeko guztia apunte eta oharretan oinarriturik dago. *Dies irae*, *Tuba mirum*, *Rex tremendae*, *Recordare*, *Confutatis* eta *Lacrimosa* osatuta zeuden eta bokal eta instrumentalak zirriborrotuta; *Lacrimosa*, aldiz, eten egiten zen *Qua resurget ex favilla* atalean; *Offertorioan* (*Domine Jesu* eta *Hostias*) trazaratuta zegoen; *Sanctus*, *Benedictus* eta *Agnus Dei* falta ziren. Zirriborrotatuko mugimenduak bere ikasle Susmayr-en aurrean kantatzen zituen Mozartek. Hor-taz, esan daiteke bere obraren bukaera ez dela oso urruti ibiliko Mozartek berak aurreikusten zuen hartatik.

Estreinaldia, Mozarten izenarekin, Gottfried Van Wieten-en ekimenez izan zen 1793ko urtarrilean, Vienako Jahn aretoan.

Txartelak salgai

Etziko kontzerturako sarrerak Leidor aretoan daude salgai, eta Tolosaldea Tour-en bulegoan ere erosi ahaliko dira.

Euskarazko Komunikazio Taldeak arduradunak behar ditu MARKETIN eta KUDEAKETA sailetarako (erref.: o8-ikm)

Eskaerak da:

- Marketin eta Enpresa Kudeaketa arloko unibertsitate ikasketak.
- Kalkulu orriaren eta datu base programa informatikoen ezagutza.
- EGA edo balioakidea den euskarazko maila.

Kontuan hartuko da:

- Marketin eta kudeaketa lanetan izandako eskarmentua.
- Talde gidaritza esperientzia.
- Harremanetarako eta antolokuntzarako gaitasuna.

Kontuan hartuko da:

- Etorkizuneko proiektu batean parte hartzea.
- Egun osoko lanpostua.
- Lantokia Andoainean.

Interesa dutenek bidali curriculum, martxoaren 19a baino lehen, erreferentzia zehaztuz, helbide honetara: gizabaliabideak@jarduna.net

Donostian dagoen enpresa batek KOMERTZIALA BEHAR DU Donostia aldean aritzeko

Erreferentzia: 08-IHK

Eskaerak da:

- Egun erdiko kontratua.
- Soldata interesgarria, finkoa eta komisioek osatua.
- Beste lan komertzialekin bateragarria.

Eskaerak da:

- Euskaraz jakitea ezinbestekoa da.
- Izaera dinamikoa izatea eta harremanetarako gaitasuna edukitzea.
- Komertzial lanetan eskarmentua izatea.
- Gida baimena eta autoa izatea.

Curriculum Vitae zehatza bidali, martxoaren 18 baino lehen, gizabaliabideak@jarduna.net POSTA ELEKTRONIKORA. Ez ahaztu erreferentzia zehaztea.

IPARRAGIRRE
SACARDOLOGIA

Apirilaren 26 arte ZABALIK eta botilan arte osoan

Osiñaga auzoa / Hernani 943 55 03 28
Asteazkenetik larunbatera gauz zabalik, larunbat eguerdian ere bai

www.iparragirre.com

Haurrei zuzendutako saioek izan dute arrakasta gehiena Kultur Astean zehar

Anoeta » Balantze positiboa egin du Anoetako Udalak, ekintza guztiek «arrakasta berbera ez badute izan ere».

ERREDAKZIOA

Anoetako Udalak oso balantze positiboa egin du otsailaren 29tik martxoaren 9ra antolatutako duen Kultur Asteaz, ekintza guztiek «arrakasta berbera ez badute izan ere».

Partaidetza handiagoa izan dutenen artean, haurrei zuzendutako ekitaldiak izan dira. Hala, 25 haur inguruk diabolorekin duten abilezia lantzeko aukera izan zuten. 40 ume inguruk entzun zituzten arreta handiz Idoia Sanchezen ipuinak. 40 bat ikusle ere egon ziren Loatzo musika eskolako piano eta eskusoinu entzumaldian. Beste hainbeste ikastolako ikasleek landatu zituzten zuhaixkak Zuhaitz Egunean. 150 lagun baino gehiago gozatu zuten ostiralean *Xurdirin kontzertua* umeentzako ikuskizunaz. Azkenik, 28 haurrek hartu zuten parte igandean goiz eta arratsalde jokaturako Xake Txapelketan. Xake Txapelketako partaide guztiek eraman zuten domina etxera, eta maila bakoitzean (aurrebenjaminak, benjaminak, alebinak eta kadeteak) trofeoak egon ziren lehen hiru postuetan sailkatu zirentzat.



Barreterapia saioaren une bat. HITZA

Beste ekimen batzuk, «oso interesgarriak izan baziren ere, partaidetza eskasa izan zuten», azaldu dute Udaletik. Hala Anoeta-Alkiza kultur ondarearen ibilbidea edo *Intervencion y vinculo* liburuaren aurkezpenean lagun gutxi izan ziren.

Bisitari asko erakusketan

Emakumeen Nazioarteko Eguna-ren harira antolatutako ekimenean partaidetza ere «nabarmen-tzekoa» izan da. Horrela 80 pertsona inguru hurbildu ziren *Greban gaude* emakumeen antzezlan ikustera. 9 ikusle egon ziren *Moolaade* ablazioari buruzko filmean. Barreterapia saioan 23 emakumek hartu zuten parte eta beste hainbestek martxoaren 8ko afarian hartu zuten parte. Jende

andana elkartu zen larunbatean bertan gauean Gaztetxean Jone kantari anoetarren emanaldiaz gozatzeko.

Bestalde, aipagarria da ere bisitari askok izan dituela kiroldegian erakusgai egon den erakusketak. Ikastolako LH eta DBHko ikasleek landutakoa izan da eta historian zehar esparru desberdinetan nabarmenak izan diren emakumeen bizitzari buruz azalpenak ematen zituzten.

Hortaz, Udal Kultura batzordeak eskerrak eman nahi izan dizkie Kultur Astea antolatzen lagundu duten gizarte eragile guztiei, eta ekimen desberdinetan parte hartu duten anoetar orori. «Beraiek eman baitiote Kultur Asteari izan duen giro ederra eta bikaina», azaldu dute Udaletik.

Z Zurea da hitza info

Aita Larramendi Ikastolako saioa



Aita Larramendi Ikastolako ikasleek egindako emanaldiaren une bat. HITZA

JESUSEN BIHOTZA IKASTOLA

Iragan ostiralean, Donostiako Larramendi ikastolako LH5 mailakoa 40 ikasle joan ziren Zizurkilgo Jesusen Bihotza Ikastolara musika emanaldi bat egitera. Txirula

ederki jotzeaz gain, abesti polit batzuk ere abestu zituzten. Primeran pasa zuten denek emanaldian eta amaitzean goxokiak banatu zituzten hara hurbildutako guztien artean.

Laburrak

Hilaren 14ra arte epea ipuin marraztuen lehiaketarako

ANOETA • Hizki-Mizki ipuin marraztuen lehiaketa antolatuko du Udalak. Lanak aurkezteko epea hilaren 14ean amaitzen da. Ikasleak direnek Ikastolan aurkeztu behar dituzte lanak eta gainerakoek udaletxean. Lehiaketaren oinarriak udaletxean daude.

Koadrilaren Eguna antolatzeko bilera

ANOETA • Herriko festetako Koadrilaren Eguna antolatzeko bilera egingo dute hilaren 17an, astelehena, 19:00etan hasiko da eta udaletxean egingo dute. Festa batzordeak dei egiten die koadrila guztiei bertaratzera egitaraua denen artean prestatzeko.

Transportes Lakunzak garaipena lortu du ligako liderraren etxean

Villabona » Areto futboleko taldeak 2-4 irabazi zuen eta bederatzigarren postuan dago sailkapenean.

ERREDAKZIOA

Transportes Lakunza areto futboleko taldeak garaipen garrantzitsua lortu zuen pasatu den asteburuan. Kenci Elgoibar ligako liderrari bere etxean 2-4 irabazi zion. Garaipen horrekin Lakunza bederatzigarren postuan dago sailkapenean.

Aipatzekoa da Kenci Elgoibarrak beste behin bakarrik galdu duela liga honetan, eta bigarren sailkatuaren aurka izan zen kasu horretan. Partida tentsio handiarekin hasi zen. Hasieran berdinta-

suna nagusi bazen, pixkanaka Lakunzak konfiantza hartzen joan zen eta aukerak iristen hasi ziren. Horrela, defentsa on eta elkar ulertze baten ondoren Jauncarrek lehenengo gola sartu zuen Lakunzarentzat, jokaldi pertsonal baten ondoren. Aurkariak ez zuen aukerarik sortzen eta bazirudien Lakunzak gol gehiago sartu zitzaizkela. Eta horrela izan zen. Arearabidalitako jaurtiketa baten ondoren, Juancarren hanketara iritsi zen eta 0-2koa lortu zuen. Markagailu horrekin iritsi zen atsedenaldira.

Bigarren zatian jokoan ez zegoen aldaketarik eta Lakunzakoak ziren nagusi. Hainbat aukera sortzen zuten billabonatarrek, baina ez zegoen golik lortzen. Hala ere, arrisku handirik ez zuten jokaldi batean 0-3koa lortu zuen Xabi Blanchek. Horrek Kenci Elgoibar esnarazi

zuen, baina Lakunzako defentsak eta bi atezainek ezerezean uzten zituzten aukera guztiak. Gauzak horrela, Juancarrek bere hirugarren gola sartu zuen kontraeraso batean.

Hamar minutu besterik ez ziren gelditzen eta Kencik atezain-jokalaria jarri zuen kantxan. Azken minutuak nahiko eroak izan ziren. Liderraren presioaren ondoren eta baloia oztu ondoren lehenengo gola sartu zuten eta 1-4koa jarri markagailuan. Ondoren arrisku handirik gabeko jaurtiketa batean baloiak defentsa ikutu eta barrura sartu zen. 2-4koa izan zen hori, baina denbora gehiago ez zegoenez, horrela amaitu zen partida.

Hurrengo norgehiagokara Oladerran izango dute Lakunzakoek, UPV-Alavaren aurka. Larunbatean izango da, 18:00etan.

hitza info

herri informazioaren leihoa

dagoeneko zabalik

www.hitza.info

Gipuzkoako Eskolarteko Pilota Txapelketaren finalak Belabietan

Ibarra » Hilaren 15ean, larunbatean, 16:00etatik aurrera alebin eta infantil mailetan jokatu dira pilota finalak.

ASIER IMAZ

Gipuzkoako Eskolarteko Eskuzko Pilota Txapelketaren finala jokatu da hilaren 15ean, larunbatean, Ibarako Belabieta pilotalekuan, Alebinetan eta infantiletan jokatu dituzte partidak 16:00etatik aurrera.

Sendi Ekintzak eta Pilota Aniztasuna KEEK antolatu dute txapelketa, Uzturpe Ikastolak eta Ibarako Udalak lagunduta. Antolatzaileek azaldu dutenez, «Gipuzkoako Pilota Federazioak eskatu zigan

txapelketa antolatzeko. Guk onartu egin genuen, Ibaran pilota sustatzeko proiektu bat martxan dugulako eta horren barneko ekintza berri bat bezala ikusi dugulako».

Uzturpe ikastolaren lana

Gipuzkoako eskolarteko txapelketaren finala larunbat honetan jokatu baldin bada ere Belabietan, 16:00etatik aurrera, azken bi asteburuetan pilota partidak jokatu dira Ibaran, final-laurdenetako eta finalerdietako kanporaketak, hain zuzen ere.

Antolatzaileak Uzturpe Ikastolak egindako lana azpimarratu nahi izan du, «bi taldeekin hartu du parte Uzturpek, nahiz eta finalera ez iritsi, oso paper txukuna egin dute». Azkenik herritarrak eta ingurukoak ere gonbidatu nahi

izan dituzte larunbat honetako finalera.

Lau final Belabietan

Bi mailatan jokatu dituzte finalak larunbatean, alebinetan eta infantiletan. Hauen barnean, neska eta mutilak ariko dira, ondorioz, Belabietan lau final ikusteko aukera egongo da.

Alebin nesketan, Azpeitiko (Gipuzkoa) Ikasberrik Altzoko Imaz bertsolariaren aurka jokatu du. Mutiletan, Villabonako Jesusen Bihotzak Zaldibiako (Gipuzkoa) Lardizabal izango du aurrean. Infantil nesketan, Zarautzeko (Gipuzkoa) Lasaiek herri bereko Lizardi izango du arerio eta mutiletan Asteasuko Pello Errotak Anoetako taldearen aurka jokatu du.



WingTsun ikastaroa eskainiko du Belabietan apirila eta ekainean. HITZA

WingTsun ikastaroan izena emateko epea zabalik Belabietan

Ibarra » Izena emateko epea zabalik dago eta horretarako, nahi duenak Belabieta kiroldegira joan daiteke edo dei dezake.

Astelehena eta asteazkena

Kiroldegiko arduradunek azaldu dutenez, WingTsun erakustaldiak izandako arrakastaren ondorioz, hilabete bateko ikastaroa egitea pentsatu zuten. Gauzak horrela, apirilaren 2tik aurrera, banakako defentsa, Kung Fu eta Armak izeneko ikastaroak eskainiko dituzte Belabieta kiroldegian, astelehen eta asteazkenetan. Orduegiari dagokionez, bi egunetan 20:30ean, apirilaren 2tik ekainaren 23ra hain zuzen ere.

A. IMAZ

Ibarako Belabieta kiroldegia hilabete bat iraungo duen WingTsun ikastaroa antolatu du kiroldegian, apirilaren 2tik ekainaren 23ra hain zuzen ere.

Izena emateko eta informazioa eskatzeko kiroldegiko bulegoetara 09:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 22:00etara joan behar da. Telefonoz informazioa lortu nahi duenak, 943671544 zenbakira deitza nahikoa izango du.

Bazkidea eta ez bazkidea

Matrikulazioari dagokionez, kiroldegiko bazkideek 84 euro ordaindu beharko dituzte eta bazkide ez direnek 117 euro.

Mendira eta upategira joateko aukera igande honetan


Ibarra » Martxoaren 16ean autobusez irtengo dira Kultur Etxe ondotik 08:00etan, izena emateko aukera zabalik dago.

A. IMAZ

Bai Euskal Herriarrieta Haitzetan Raju Mendi taldeak Toloñora (Araba) mendi irteera antolatu dute igande honetarako. Oraingoran berezitasun bat ere edukiko du egun pasak, mendiaz gain, Markiegi upategia ere bisitatuko baitute.

Izen-ematea eta irteera

Irteeran parte hartu nahi duenak 652 71 58 00 telefonoan edo Denak Tabernako zerrendan eman dezake izena; egunean bertan ere agertu ahal izango da autoz, antolatzaile



Igandean Ibaratik Toloñora (Araba) joango dira egun pasa. HITZA

lekin harremanetan jarri ostean. Martxoaren 16an 08:00etan irtengo dira Ibarako Kultur Etxearen paretik autobusez, egun pasa egin ondoren 19:00etan iristeko.

Mendi irteera hau Euskal Herria ezagutzuz, lurraldetasuna sustatzuz ekimenaren barnean koka-

tzen da. Zuberoa, Lapurdi, Nafarroa eta Bizkaia ezagutu ondoren orangoan Araba ezagutu dute.

Apirilean, berriz, Behe Nafarroaren txanda izango da eta maiatzetan, Gipuzkoarekin amaituko dute Ibarako bi taldeek ekimen hau.

Laburrak

Ibarra FSk 4-7 irabazi zuen Liebanaren aurka

IBARRA » Ibarra FSk etxetik kanpo garaipena lortu zuen asteburuan Liebana taldearen aurka 4-7. Kantabriako (Espainia) taldea aurretik jarri baldin bazen ere lehen zatian 3-1eko emaitzarekin, ibarrek partidari buelta eman zioten garaipen garrantzitsua lortuz.

Ildoia Schez ipuin kontalaria bihar eskolan


LIZARTZA » Ildoia Sanchez ipuin kontalaria bi saio eskainiko ditu bihar Lizartzako eskolan. Lehen saioa 09:30ean hasiko da eta 6-11 urte bitarteko haurrei zuzendua egongo da. Ondoren, 10:30ean eta leku berean 2-6 urtekoentzat eskainiko du.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAN jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldecohitzza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Araitz, Arano, Areso, Betelu, Goizueta, Larraun, Lekunberri eta Leitzako udalek helburu eta indarrak batu eta zonaldearen garapen iraunkorrerako proiektua abiarazi zuten: Mendialdeko Agenda 21. Proiektua aurrera doa, aurrena herri hauetan herritarrei inkestak egin zitzaizkien eta zenbait bilera ere egin dituzte. Leiza eta Aresoko ordezkariak beraien iritzia eman dute.

«Bakoitza bere aldera tiraka hasten bada nik uste dut Agenda 21ek ez duela funtzionatuko»

XABIER ZABALO » Leitzako alkatea

Agenda 21 » Xabier Zabalo Leitzako alkatea den heinean, Mendialdeko Agenda 21ean buru-belarri sartuta dago.

NAIARA GARZIA

Agenda 21 proiektua aurrera doa. Dagoeneko Leitzan herritarrek parte hartzeko egin beharreko 2 bilerak egin dituzte Leitzan eta honen ondoren Xabier Zabalo (Leitza, 1981) proiektuaren inguruan mintzatu da, bera, Mendialdeko Agenda 21 osatzen duten 8 herrietatik (Leitza, Areso, Araitz, Arano, Betelu, Goizueta, Larraun eta Lekunberriko) bateko alkatea baita. **Nuk alkatetza hartu zenuenean nola ekin zenituen proiektu honi?** Gu sartu ginenean udaletxean jada Agenda 21a garatzeko akordioa hartuta zegoen, eta gero talde susatzailerekin deitu zigun 8 udalderako ordezkariak eta hortik hasi zen dena.

Jendearekin bilerak egiten hasi



N. GARZIA

baino lehen bilera pribatuak egin zenituzten?

Beraiantzat aurrena garrantzitsua zen guk ze ikuspuntu geneukan ikustea, gu ordezkariak garela.

Agenda 21 bezalako proiektu bat beharrezkoa zen?

Nire ustez oso baikorra da, baita jendeak parte hartzea eta iritzia ematea ere. Baina beti bezala nahiko nuke hitzetan gelditzen den

proiektu horietako bat ez izatea, eta ateratzen diren proiektuak bere finantziazioa izatea. Aurrena jendearen parte-hartzea bultzatzen baduzu, gero ondorio batzuk ere ikusi beharrik dira.

Zein da zure ikuspuntutik Agenda 21en helburua?

Eskualdeko beharrak zein diren identifikatzea eta eskualdea koheesionatzea. Agenda 21 den beha-

rrak asetzeko erreminta bat dela pentsatzen dut.

Leitzan lana nola ikusten duzue?

Zaila dagoela ikusten dugu eta lana dibertsifikatu egin beharra dagoela. Jada ez da garai batean bezala, enpresa handi bat etortzen dela eta 500 langile hartzen dituela, nik uste sektore guztiak bultzatu beharra direla eta hortik sortuko dela lana.

Azkeneko bileran Kultur Etxe baten beharra ere azpimarratu zuten.

Beti izandu da helburu bat Leitzako herriarentzat Kultur Etxe bat izatea, eta gure aldetik esan beharra duguna da lanean ari garela Kultur Etxeaz aparte eremu dotazional ezberdinak lortzeko.

Eguneko zentroa ere hor sartuko litzateke?

Falta den beste dotazio bat izanen litzateke eguneko zentroa. Nahiko nuke gutxienez bideak irekitzea denek, nahiz eta guk ezinen dugun-gero aurrera eraman, pixka bat planteamenduak jartzea.

Osasun-etxean espezialitate fal-

tak ere nabarmendu zituzten azkeneko bileran.

Osasun kontseiluarekin elkartu ginen, 7 urte baitziren elkartzen ez zirela, eta Iruñetik tekniko batzuk etorri ziren. Gutxienez hiru eskara egin ziren: psikologia zerbitzua, errehabilitazioa eta ginekologia. Erabaterako ez bada ere, egun batzuetan jartzeko, edo froga bat egin dezatela, behintzat. Erantzunaren zai gaude.

Herri guztietatik herri handiena

Agenda 21 denen beharrak asetzeko erreminta bat dela pentsatzen dut

da Leitza. Horrek Agenda 21en pisu handiagoa ematen dio?

Nik uste eskualdeko irizpidea hartzen badugu, eskualdeari erreparratu behar diogula eta mendialdeko dotazio asko falta dira orokorrean. Bakoitza hasten bada bere aldera tiraka nik uste Agenda 21k ez duela funtzionatuko. Leitza oso garrantzitsua da, biztanle mailan handiena baita, baina arazoa da ez dela inoiz egondu eskualde logika bat. Beti herriak berea egin du. Eskualdearen koordinazioak garrantzia du, autobus zerbitzu egoki bat izatea, gizarte mankomunitatea hemen egotea... Nik uste hori bultzatu beharra dela.

«Polita izanen litzateke elkarlanean aritzea, eskualde mailan elkarri laguntzeko»

IGOR ARRAIAGO » Areso Eraikitzen taldeko zinegotzia

Igor Arraiago zinegotziak Mikel Baraibar alkatearekin batera Agenda 21en jarraipena egiten du.

N. GARZIA

Igor Arraiago (Areso, 1984) Aresoko zinegotzia da eta Agenda 21en itzakiarekin herriaren beharren inguruan mintzatu da. Herriangabeziak dituztela onartzen duen arren, zenbait gauzetarako (osasun-etxea, adin batetik aurrera ikastea...) Leitza joan beharra logikotzat jotzen du.

Zertan da lagungarria Agenda 21 zure ustez?

Herriangabezia asko ikusten dituzte eta gero denen artean hitz eginez askotan amankomunak izan daitezkeela ikusten duzu.

Lan mundua nola ikusten duzue?

Lan munduari buruz ere mintzatu gara eta Leitza esaterako, pabilioi handiak egin ziren, baina hortik

lan gutxi ateratu da, eta leitza batzuek zalantzak dituzte Aresoko pabilioien inguruan.

Lana ekarriko al duite Aresora?

Bai. Areso bezalako herri txiki batek, pabilio batzuk egiteko aukera izatea eta diru sarrerak edukitzea, gero herritar guztientzat ongi heldu da. Udaletxean dirua baldin badago herriaren gauzak egin daitezke, gainera jarriko dugu aukera herriko jendearentzat lanpostuak sortzeko. Orain mementoz 2 emakume badaude honera etorri behar duen enpresabatean.

Aresoren ze gabezi ikusten dituzu?

Eskola aldetik uste dut 3. DBHn Leitza joaten direla, baina normalean da, Areso bezalako herri batean nahikoa egiten dugu ordurarte eskola ematen. Leitza joaten dira gero baina autobusa eta guzti dauzkagu eta hor ez dago arazorik. Haurtzaindegi bat behar bada ongi etorriko litzateke, baina guk ezin genuke ekonomikoki kudeatu, Nafarroako Gobernuak ez baitu ezertarako laguntzarik ematen,



N. GARZIA

ten, Gipuzkoanez bezala. Eta gero, Leitza bezala, INEMera joateko Donezteberaino jo beharra duzu eta hori ere oso gaizki dago.

Frontoi baten beharra baduzue, ez?

Bai, horrekin ari gara, eta 3 urte hauetan frontoi polit bat aterako dugula espero dugu. Guretzako frontoiak ez du esan nahi bakarrik

kirola. Herriko festak iristen dira eta ez daukagu estalki bat, herri bazkari bat egiten dugu eta euria egiten badu izurratu da. Aizkolariak ekarri behar badituzu, edo ekitaldiak egin nahi badituzu, ez daukagu lekurik.

Garzteen egoera zein da herrian?

Egia esanda, hain herri txikia izanda gazte asko daude, ez dakit ho-

rrelako tamainua duen eta hainbeste gazte dituen beste herriaren batikusiko duzun, alderdi horretatik pozik gaude. Gero, ni barne, bagaude gazte batzuk 23, 24, 25, 26, 27 urterekin, lanean gabiltzanak, eta momentu honetan ez daukagu herrian gelditzeko aukerarik, eta horrekin ere lanean ari gara. Gazteentzako etxebizitza batzuk ateratu nahi ditugu. Gure politika hori da. Ez dugu nahi herria hazitzea, ez dugu nahi kriston urbanizazioa

Ez daukagun elkarren arteko lotura hori, herri bakoitza bere aldetik ibiltzen da

egin, 50 etxebizitza jarri, asteburutan bakarrik etorri eta herrian baxterez ez bizi direnentzat. Guk nahi dugu gutxienez herrikoek aukera izatea bertan gelditzeko. Badaukagu proiektu bat esku artean. Hemendik 2 edo 3 urtetara aterako da.

Eskualde nortasuna badago?

Ez daukagu elkarren arteko lotura hori, herri bakoitza bere aldetik ibiltzen da, eta polita izanen litzateke eskualde mailan elkarlanean aritzea, elkarri laguntzeko, azkenean denak denen behar bainakauden. Zenitu horretan Mendialdeko Agenda 21 oso ongi dagoela uste dut.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Villabona.** Udal batzarra 20:00etan udaletxeko batzar aretoan: batzorde informatiboetan aldatetako, Eneko Galarragaren aurkako euroagindua.
■ **Anoeta.** 2008ko jaiak iragartzeko kartela egiteko lehiaketa antolatuta du Udalak. Lanak udaletxean aurkeztu behar dira. Azken eguna, apirilaren 18a.

Ikastaroak

■ **Tolosa.** Paisaiari buruzko argazki tailerra. Martxoaren 31tik ekainaren 30a bitartean, astelehen eta asteazken arratsaldetan, Iñigo Royoren eskutik. Izena emateko azken eguna, martxoaren 14a, ostirala da, Kultur Etxean.
■ **Ibarra.** Wing Tsun ikastaroa apirilaren 2tik ekainaren 23ra, astelehen eta asteazkenetan 20:30ean. Izen-ematea, kiroldegian 84 eurotan (ez bazkideek 117).

Kirolak

■ **Tolosa.** Andorrara mendi irteera antolatuta du Aste Santurako Oargik, martxoaren 19tik 24, Coma Pedrosa (2.942 m) eta Pic Port Vell (2.655 m). Izen-ematea, elkartean bertan.
■ **Tolosa.** Larrea-Arantzazu mendi irteera antolatuta du Alpino Uzturre elkarteak iganderako, Aumategi-gaina (1.191), Gaboño (1.175), Malkorra (1.242), Pinpil (1.279) eta Gasteluaiz (927) mendiak igoz. Izen-ematea, elkartean (943 652789).


» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 672438.
■ **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Sagain Mendi Talde berriak Asteasutik Igaratzara ibilaldia antolatuta du iganderako: haurrak Guardetxera autobusez joango dira eta Pagomaritik iritxiko dira Igaratzara.

Lehen pausoak Igaratzara



Aralarrera joango dira Asteasutik: bertatik Gipuzkoako lurrik ikusi ahal izango dituzte. Ezkerrean, Txindoki. HITZA

ERREDAKZIOA

Mendi elkarte berri batek proposa dezakeen bi-diaia erakargarri bat Aralar bera da: Sagain Mendi talde berriak hori antolatuta du datorren iganderako, Igaratzara ibilaldia.

Asteasutik Sagain Mendi Taldeak antolatuta du, Aralarren. Interesa dutenentzat, 08:00etan abiatuko da autobusa Asteasutik plazatik.

Larraiztik hasi eta Aralar zeharkatu ondoren, Igaratzara joan eta Guardetxean amaituko da ibilaldi hau. Haurrak, berriz, autobusez joango dira Guardetxera eta handik Igaratzara Pagomaritik barrena. Eguerdian inguruko herriren batean egingo dute geldialdia bazkaltzeko.

Izen-ematea kiroldegian egin behar da (943 69 34 00). Webgune berri bat ere martxan jarri da, www.sagain.es eta hemen irteeren berriez gain, irteeratan ateratako argazkiak ere izango dira ikusgai.

A Agurrak



Urte askoan!

Arene Lasa Nieto (Laskibar).
Gaur 4 urte. Muxu asko etxekoan partetik.



Urte askoan!

Unai (Alegia). Gaur 7 urte. Zorionak eta muxu asko familiaren partetik.


agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitzaan: Udaletxeko bulegoa

agurrak



Bete itzazu urteak hitzarekin

Harpidetza eskaintza berezia

HITZAren harpidedun egin zaitez martxoan, eta bi opari hauetako bat jasoko duzu.



Tolosaldeko eta Leitzaaldeko HITZA